

IL AZALPEN PROBA • <i>Zortzi ipuin gotiko</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Trena gerturatu egin zen, eta bai, nire albotik igaro zen. Hala ere, onik irten nintzen; ez nintzen trenaren azpian sartu, bestela burdinazko gurpilek txiki-txiki egingo ninduketen eta. Dena dela, litekeena da trenaren indarrak beregana erakarri eta kolperen bat jaso izana, hutsune bat daukadalako memorian, denbora lapsus bat edo. Baina besterik ez. Kontua da gaua lo edo eman dudala, gaur goizean erietxean esnatu bainaiz. Gelan, une horretan, ez zegoen inor ere. Ni, inolako minik gabe, jaiki eta lasai asko irten naiz ospitaletik etxera etortzeko. Alabaina, ez dut inor ere topatu hemen; nire gurasoak ez ziren etxean, ez dakit zergatik. Hori bai, hona nentorrela, zerbait arraroa sumatu dut. Kaletik nindoala, inork ere ez nau agurtu.

IL AZALPEN PROBA • <i>Zortzi ipuin gotiko</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Trena hurrengo geltokira heldu zenean, biok nasara jaitsi ginen, eta nik, atrebentzia handiarekin, ea etxera laguntzea nahi ote zuen galdetu nion. Berak ez zidan ezezkorik eman; nire Lolitak, era ezin amultsua-goan, konpainia egin niezaiokeela adierazi zidan. Tabako paketetik zigarreta bat atera, marrubizko ezpainetan paratu, eta piztu egin zuen. Ahokada sakonak emanez kezko uztaiak egiteari ekin zion; dotoreziarekin erre zuen zigarreta. Bidean aurrera egiten genuen bitartean, solasean aritu ginen. Berak bere ikasketez hitz egin zidan: erizaina izan gura zuen. Maitasunaz galdetu nion, eta senargairik ez zuela azaldu zidan. Ni asko poztu nintzen erantzun hura haren aho erakargarritik entzutean.